

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2022 Zerga premiazko araugintzako dekretua, apirilaren 26koa. Onestea energiaren arloko zerga neurriak eta beste zerga neurri batzuk onetsi zituen otsailaren 1eko 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren aldaketa**

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 23 quater, 26. eta 33. artikuluek xedatzen dute, batetik, zerga itunduak direla energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, eta, bestetik, Estatuak aldi bakoitzean xedatzen dituen funtsezko arau substantibo eta formal berak aplikatuko zaizkiela.

Ekainaren 24ko 12/2021 Errege Lege Dekretuak energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga eten zuen 2021eko hirugarren hiruhilekoan, eta energia elektrikoaren balio erantsiaren gaineko zergaren tasa ehuneko 21etik ehuneko 10era murriztu zuen, ondorioak 2021eko ekainaren 26tik 2021eko abenduaren 31ra arte izanik.

Ondoren, irailaren 14ko 17/2021 Errege Lege Dekretuak energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren etendura 2021eko laugarren hiruhilekora luzatu zuen. Bestalde, elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren ehuneko 0,5eko tasa murriztua ezarri zuen, salbuespenez eta aldi baterako, 2021eko abenduaren 31ra arte.

Neurri horiek berriro luzatu zituen abenduaren 21eko 29/2021 Errege Lege Dekretuak. Ekoizpenaren balioaren gaineko zerga 2022ko lehen hiruhilekoan etetea ezarri zuen, eta energia elektrikoaren balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 10eko tasari eta elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren ehuneko 0,5eko tasa murriztuari eutsi zien 2022ko apirilaren 30era arte.

Neurri horiek Arabako zerga araudira egokitzeko, hasiera batean, uztailaren 6ko 6/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bidez egin zen, eta, ondoren, azaroaren 2ko 7/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren eta otsailaren 1eko 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bidez, hurrenez hurren.

Berriki, 2022ko martxoaren 29an, onespena eman zaio Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituen martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuari.

Zerga arloan, hainbat neurri hartu dira. Hartara, energiaren gaineko zergen arloan, 2022ko ekainaren 30era arte eutsiko zaie energia elektrikoaren balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 10eko tasa murriztuari eta elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren ehuneko 0,5eko tasari. Gainera, 2022ko ekainaren 30era arte luzatzen da energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergaren etendura.

Xedapen honen xedea da otsailaren 1eko 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan hartutako neurriak luzatzea, aipatutako aldaketak txertatuz, Ekonomia Itunaren 23 quater, 26. eta 33. artikuluetan ezarritakoa betez.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako araudi inaktuaren txosten laburtua aztertu da.

Horren ondorioz, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailko foru diputatuaren proposamenez, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak Foru Aldundiari ematen dizkioten eskumenak erabiliz, presazko arrazoiak direla eta, honako hau:

## XEDATZEN DUT

**Artikulu bakarra. Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 1eko 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zeinaren bidez onesten baitira energiaren arloko premiazko neurriak eta bestelako zerga neurriak**

Aldaketa hauek sartzen dira Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 1eko 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan, zeinaren bidez onesten baitira energiaren arloko premiazko neurriak eta bestelako zerga neurriak:

Bat. Aldatu egiten da 1. artikuluko 1. apartatua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“1. Bi zerga tasaren aplikazioa 2022ko apirilaren 30era arte luzatzea. Hain zuzen ere, batetik, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 10eko zerga tasa aplikatzea, energia elektrikoaren Batasunaren barruko entreei, inportazioei eta erosketei. Zerga tasa horren aplikazioa aurreikusita dago Energia Fiskalitatearen Arloan Zerga Neurriak onesten dituen uztailaren 6ko 6/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 1. artikuluan. Bestetik, elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren ehuneko 0,5eko zerga tasa aplikatzea. Zerga tasa horren aplikazioa ezartzen du azaroaren 2ko 7/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak. Dekretu horrek Arabako zerga araudia egokitzen du ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan egindako aldaketetara eta premiazko neurriak ezartzen ditu energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren eta elektrizitatearen gaineko zergaren inguruan”

Bi. Aldatu egiten da 2. artikulua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“2. artikulua. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren 2022ko ekitaldiko ordainketa zatikatuen zenbatekoa eta zerga oinarria zehaztea.

2022ko ekitaldian hau izango da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga oinarria: instalazio bakoitzean zergaldian ekoitzi eta sistema elektrikoan sartutako energia elektrikoagatik (zentral barretan neurtuta) zergadunak jaso beharreko guztirako zenbatekoa, sisteman lehenengo bi hiruhileko naturaletan sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduta.

2022ko lehenengo bi hiruhilekoei dagozkien ordainketa zatikatuak kalkulatzeko, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioa (zentral barretan neurtuta eta aldi horretan sistema elektrikoan txertatuta) zero eurokoa izango da.

Hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kalkulatzeko, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioa (zentral barretan neurtuta eta sistema elektrikoan txertatuta zergaldi hasieratik urtearen bederatzi edo hamabi hilabeteak, hurrenez hurren, amaitu arte) izango da kontuan; kopuru horretatik, lehenengo bi hiruhileko naturalean sisteman sartutako energia elektrikoari dagozkion ordainsariak kenduko dira eta emaitzaren zenbatekoari Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergaren uztailaren 9ko 24/2014 Foru Arauak 8. artikuluan ezartzen duen karga tasa aplikatuko zaio eta gero aurretik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kenduko da”

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Bigarrena. Gaitzea.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Gasteiz, 2022ko apirilaren 26a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta*

*Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**